

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko martxoaren 27an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

## **TOKIKO MONETA SOZIALAREN ERABILERA SUSTATZEKO LANKIDETZA HITZARMENA ETA 2023KO JUSTIFIKAZIO ONTZAT EMATEA**

Hernaniko Udalak, Ekhilur Kooperatiba elkarteko bazkide laguntzaile izan eta Ekhi moneta soziala martxan jartzeko akordioa hartu zuen 2021eko otsailaren 23ko osoko bilkuran. Ekhi moneta sozialaren erabilera lagungarria izango da Hernanin %100 tokiko merkataritza, ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko.

Hernaniko Udalak LANKIDETZA DIRULAGUNTZA HITZARMENA proposatzen du ondorengo helburuak lortzeko:

- 1- Herrian zirkuito ekonomiko itxia sortzea, tokiko ekonomia eta merkataritza indartzeko.
- 2- Herritarren erosketak ohiturak aldatzea, erosketak herrian egite sustatuz, ekonomia jasangarria bultzatu ahal izateko.
- 3- Komunitatea indartzea (herritarrek, enpresa txikiak-ertainak, Udala...), lehiatu beharrean, inguruko bizitza soziala eta ekonomikoa hobetzen lagunduaz.
- 4- Hurbiltasun-ekonomia indartzea, ikuspegi solidariotik, gizarte-ongizatea eta justizia ekarriko duten balioak hobaritu eta sustatuz.
- 5- Udalerriko hiri ekonomia dinamizatzea, beste neurri batzuen osagarri eta indargarri gisa jardunez.

Bi aldeek bat egiten dute ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko jardunean, toki ekonomia indartzeko tresna gisa.

Bi aldeek egoki ikusten dute tokiko moneta sozialaren erabilera sustatzea, kasu honetan Hernaniko Ekhi moneta sozialaren erabilera.

Era berean, 2023 urteko jarduera-planari lotutako justifikazioa egiteko memoria eta dokumentazioa aurketu du Ekhilur Kooperatiba elkarteak.

Ikusita, Udal Teknikariaren txostena.  
Ikusita, Kontu-hartzailearen txostena.

Kontuan hartu da Tokiko Garapen batzordeak 2024ko martxoaren 21ean GEHIENGOZ emandako irizpena

Kontutan hartu da Gobernu Batzarrean egindako bozketa

Horiek horrela, Gobernu Batzarrak **GEHIENGOZ erabaki du**

1. 2023 urteko justifikazioa ontzat ematea eta itzuli beharreko kopurua Ekhilur kooperatiba elkarteari eskatzea (24.199,82€).
2. Tokiko moneta sozialaren erabilerarako Lankidetzaren Dirulaguntza Hitzarmena onartzea, Ekhilur kooperatiba elkartearen alde.

Epea: 1 urte (2024/12/31)

Kontusaila: 1 02.481.03.431.00 2024 (7102) EKHILUR HITZARMENA-Moneta

Kreditua: 55.000,00 €

3. Lankidetzaren Dirulaguntza Hitzarmen honen berri ematea BDSN-n eta lehen ordainketa egitea: 33.000€ (% 60).

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuten organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritik, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekurtsoak aurkezteari ezertan galderazi gabe.

Hernanin 2024ko martxoaren 27an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: [hhz@hernani.eus](mailto:hhz@hernani.eus)



EKS | CSV: **ESKUe3c08b52-f9e7-4433-91ca-e25c6d14bf68**

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>